

CAMPIONEN «GRAMATICA» ETA BESTE

Koldo Mitxelena

Campionen hizkuntzalaritza lanez mintzatu behar badut hemen, beharrezkoa izango dut noraezean Campionez beraz ere zerbait esatea.

Jendea hasia dugu don Arturoz mintzatzen eta ordu ere bazen: zenbait lan irakurri ditut behintzat han eta hemen. Badirudi, nolana ere, ez dela oraindik aski den adina esan Campionez beraz. Pertsona baino giroa eta ingurunea gogokoago izan ditzake norbaitek. Ni, berriz, bestetara ninderaman haizeak: ezagutu nahi nukeen eta behar litzatekeen neurrian ezagutzen ez dudana (gehientsuok ez dugun?) pertsonagana.

Campionen bizitza nolazpait itxuratu behar baldin banu, zaharragoak eta berriagoak bereziko nituzke. Ez noski bata, lehen aldia, bestea ez bezalakoa delako guztiz, baizik eta bata eta bestearen artean halako giro-aldatzea, tenperatura aldetik batez ere, nabari uste dudalako. Borroka bideak (eta *cat' exochen* borrokabide den politika) saiesten ditu eta alderantziz gero eta emanago agertzen zaigu abia-abiatik hain gogoko zituen ikerlanei. Gradu kontuan gabilta, berriz ere diot, eta ezta inola ere bai-ala-ezko arazoa.

Hogeitabi urte zituen 1876an, ebakondoz hain beterik utzi gintuen gerraren azkenean. Nondinahi hartzen ditugun horren ondorioak, ez ziren inolaz ere hemengo jende asko eta askoren buru-bihotzak asebetetzeko modukoak izan. Ezta Campionenak ere. Horrelako lehia urrikigabeen ondoren, askok, ez zenbaitek, pentsatu ohi du bide okerretik, malkarrik malkar, ibiliak garela eta, egin direnen kalteak eta hutsaldeak ageri direnez gero, erraz genukeela bestelako kamioren batetik, lehenagoko kutsurik ez duenetik, abiatzea. Uste horiek, ordea, gainerako usteen pare, ustela dute erdia.

Karlista-liberalen arteko gerra aski alferrikakoa, noragabea, iruditzen zitzaion Campioni, Nafarroari (eta Nafarroa ez da nafarren bilduma baizik: lehengo eta oraingo nafarrena, etorkizun direnak bestalde) eta Campionentzat eta besterentzat Nafarroaren sorkari eta eraskin baizik ez zen gainerako Euskal herriari ez zion deus eskaini, kaltea baizik. Lehengo ustebideak ahitu ondoan, berriak behar ziren bilatu. Eta hori ez zitzaion neke gure gizonari amaituberria zen gerratean ez zelako gehiegi lotu, bihotzez eta asmoz ez behinik-behin, ez batzuen ez besteen alderdiari.

Borroka bukatu bezain sarri, beraz (eta amets hau berau egin du geroko zenbait amesgilek), deseginak ageri ziren behaztopabide zitezkeenak; prest, berriz, orubeak nahi-eta-ezko genituenak eraikitzeko. Esan beharrik ez amets hori aurki aienatu zitzaiea. Lehengo lepotik zuten burua lehengo alderdiek eta ez zebiltzan bereganatua zuten eremua inori uztekotan. Lehen, egia esan, gobernubideak erabat aldatzeaz eta mantentzeaz ari ziren ardailan; gero, berriz, kargutxoak eta boto-mordoxkak gordetzeaz. Hitzak hitz, ordea, ez zen funtsean deus aldatu. Ondorio horien zain mingotsaren irudia jaso nahi duenak ez du, urrutira gabe, gurearen *Blancos y negros* irakurri besterik. Gogoan duelarik, gainera, *gure* orduko literatura ez dela soil-soilik euskal literatura, baizik eta horretaz gainera gurean sortzen den erdarazkoa. Navarro Villosladaren gerrate ondoko *Amaya* (1876), esate baterako, ez zuen Campionek, hain gurea zelarik, baztertu. Ikus, bestela, honek *Revista Euskara*-n egin zion kritika edo, hobeki esan, aditzera ematea. Eskumenean dugu orain Otatzu jaunari eskerrak.

Nafarroari zinetan eta benetan zegokion joera, besterenganako grinena mirabe ez zena, nahi zuen Campionek, eta honekin batean beste batzuek: Nafarroaren lehenaldian finkatua, honen historia sendoan oinarritua... Eta, oraindik bizi zelarik, aldi igaroan lur horietan hedatuago eta indartsuago ageri zen hizkuntzan.

Gogo-iritzi horiek ez ziren, esan den bezala, Campionenak bakarrik, ezta alderatzeko ere. Hor bazkatu ziren 'Asociación Euskara' eta *Revista Euskara* zirelakoak, Iturralde, Oloriz, Altadill, D. Irujo, E. Aranzadi, beste hainbestekin Campion bera lagun.

Zenbait urteren buruan,ugar horiek ez ziren ito, bai ordea epeldu eta are ilaraundu. Euskarak, Nafarroako euskarak buruenik, ez zuen burua jasotzen, behetik beheitiago zihoan. Hortik zetorkion haragian josia beti eraman zuen arantza, gero eta barrenago, Donostiako azken orduetaraino. Politikarako isuria, berriz, eta isuri euskaltzalea, lege zaharren aldekoa nolazpait esan, indarberritu zen. Bestetan areago, ordea, Nafarroan baino, bide berriok ez zirela, gainera, Campionen arraz gogokoak. Bere usteen alde gatazka bizian ibili ondoren (ikus, esaterako, *RIEV*-en lehenbiziko urteak), berera itzuli zen eta, bere horretan, lagun eta adiskide ospatsuz inguraturik, hainbat euskal elkarteren partaide eta buru zelarik, lanean iraun zuen kemenak agortu arte, bista aurrenik.

Badakigu euskal idazle izan zela, erdal idazle ez ezik, maizago eta ugariago hasiera hartan gero baino. Beste horrenbeste egin zuten, egia esan, Etxegarai anaiak eta hauei ez zaie nabari Campionek nabarmen duen ajea. Ez baitzuen honek sekula euskarazkorik idatzi erdarazkoen aldamenen jar dakiokeenik. Erdarazkoek izan zuten beti garra eta giharra, orain (Otatzu jauna agertu arte, bederen) zokoratuxe badaude ere.

Erdarak gogorazi dit, zehar bidez, Campioni, Broussainekin batean, Euskaltzaindiak egotzi zion eginbide larria, euskararen batasunerako bide bila. Egin zuten lana, ederki egin ere, ikusteko ondoriorik gabe, haatik: inolazko ondoriorik ez zuela izan esan baitaiteke. Gogoa da, gura, uste eta asmoak mamtzen eta gauzaten dituena noski eta ez zegoen, ez orduan eta ez frankoz geroago, gogorik, gogo eragingarririk esan nahi nuke, jende samalden artean, harrak burutapen hutsalak burutzera daraman horietakorik. Entzun berria diot Charritton jaunari Broussain azkarrago izan zela eta bere laguna nagiago egiteko horretan, Lacomberengandik datozen gutun agertu berriek adierazten omen dutenez. Horrela bide da, izan, baina ez dakit bietarik inork, ez bata ez besteak, xede-helburuak hurbil eta eskuragai ikusten ote zituen. Ezetz nioke nik.

Buru eta eskuak erabiliak zituen gazte-gaztetandik herriari dihoazkion arazoetan, gerra amaitu baino lehenagotik, hain zuzen. Eta Bonapartek sorrerazi ez zion grina hori ez zitzaion sekula ihartu, urritzen eta bakantzen joan bazitzaion ere, bizi eta herioaren legez. Euskal bideak, ordea, Printzeaganik jaso zituen, batipat, eta euskalkietarako isuria lehenbizi, *Orreaga*-rekin, 1880. Mintzabeharra ere berekin zekarren, ordea, eta ez huts-hutsik besteri jaulkia jasotzekoa. Horrexegatik beragatik ez zaio noski iraingarri irudituko inori, berri ere badiot Nafarroako euskal erakusgarri horien iturburua txukun eta txairro (erdaraz ez ote, gainera?) idatzi nahiak ondorioak ahuldu eta indargabetu zituela. Galduan irten zen euskalkien ezaguera eta ez genuen, galera horren truk, Altabizkarko kantuaeren kimu berri bat, Hiribarrenenaren ondoan, irabazi baizik egin.

* * *

Besterik mintzatu da hemen *Gramática*-z eta ez nuke zaharrak berritzen abiatu nahi. Obra hori ere, nolazpait, Bonapartegandik dator, baina Campionek eginak ezina zirudien Printzearentzat. Honek, izan ere, bildu eta metatuko zizkizuen hango eta hemengo aberastasunak, baita bata bestearen hurren ipini ere argi eta garbi. Elkarretaratze huts hori baino goragoko lotura eta joskera ematea gaitz zitzaion haatik, Schuchardt-ek gero esango zuenez. Prest zeukan lana (harriak, adriluak, karea eta zurajea baturik daudenean etxea prest da goen modutsuan) ondorengo leialak burutu zion. Bai iaio burutu ere.

Badakit oraindik orain don Manuel Lekuonak goraiatu duela liburu hori, ikas – eta irakasbide izan zuen aldetik, baina ez naiz gauza igertzeko norainoko eragin eta ondorioa izan zuen. Askok irakurri dugu —ikuskatu behintzat, bai—, lehenago edo beranduago, baita erosi ere, egokierak eskura badigu. Ez dirudi, orratik, maizegi erabili dugunik, aipatzea baita erabili izanaren seinalerik nabarmenena, eta aski urriak dira *Gramatika*-z aurki daitezkeen izena baino urrunagoko aipamenak. Horrela iruditzen zait behintzat niri.

Euskal etxeko borroken kondairak ez digu argitasun larrikerik eskainiko Campionen erabateko iritziez, hizkuntzalaritzari dagokionez. Zaharrago zen

Bonaparte, 1813an jaioa, ez zen beti ongi moldatu gazteago zituen van Eys (1825) eta Vinson-ekin (1843), ezta hauek ere harekin. Etsai van Eys izan zuen batipat, beldurgarri itxurako etsai, sinesgaitz badirudi ere orain. Gure egunotan, izan ere, ez baitzaizkigu ez van Eys ez honen Gramatika-Hiztegiak halako erraldoi itxuran agertzen.

Ez dago esan beharrik Bonaparteren borroka-lagun sutsu izan zela gure nafarra, maizenik guttieneko kontuan. Ez dut inolaz ere esango, gainera, okerbideetik ibili zela horrela jokatzean. Argitasun pila bildurik hartu zuen Printzearengandik eta, gehiago axola zaiguna, azterbideak ere ikasi zituen honengandik bilduak ugaritzeko: ikasi ez ezik, gure arteko besteri irakatsi ere bai. Bonapartek, haatik, zenbait aburu eta uste ere, hainbeste argibideren aldameanean, eman zion bere irakasleari. Orotariko eta erabateko iritziak, esan nahi dut, horrelakorik gabe (estari nahiz nabari) ez baita azterlanik xumeena ere egiteko modurik. Bonapartek berak ere, bada, zein ere teorizekena zen, ezin-itzurizko zorra kitatu zuen, noiz edo noiz.

Lacomberi esker, badakigu ze oinarrizko (horrela baderiztegu) liburu eskaini zizkion Bonapartek Campioni hizkuntzalaritza orokorrerako edo. Louis Benloew, *Aperçu général de la science comparative des langues pour servir d'introduction à un traité comparé des langues indo-européennes*, Paris 1858 (lehenbiziko argitaraldi hau da, hain zuzen, *Gramática*-ren obra-zerrendan, Ixix hh., ageri dena; ez bigarrena), eta Hovelacque-ren *La linguistique*. Azkeneko hau adiskidea ez dakit, baina Vinson-en laguna zen, batez ere *Revue de Linguistique et de philologie comparée* hartan. Benloew-en liburua, Printzeak dioenez, «ne me paraît pas trop mauvais». Nekez pila dezakegu egungo egunean iritzia iritziaren gain, Benloew-en izena, omena ez ezik, aspaldi suntsitu baitzen, esateko moduan.

Delako zerrendan ikus dezakegu Campionek ikusiak zituela Bopp eta Diez-en liburu sonatuak: *frantsesera itzuliak*. Whitneyrena ere, frantsesez *La vie du langage*, arima erratu bihurturik bizi zenean baino ospatsuago duguna (badakizue zergatik), lista horretan aurki dezakegu.

Itzulpenak hartu ditut ahotan Bonapartek 1881ean, aldatu berria dugun kontseiluarekin batean, esaten zizkion hitz hauek direla bide: «Vous me demandez des renseignements sur des ouvrages écrits en français sur la linguistique en général. Eh bien, je vous étonnerai sans doute en vous disant que nous ne possédons rien qui puisse se comparer aux ouvrages des Allemands et même, selon moi, des Anglais, qui, eux aussi, ne possèdent rien de plus que les Allemands.» Lerro hauek, jakina (aski da urteari begiratzea), Londrestik datoz.

Dena den, Campionek ez zituen itzulpenetan baizik ezagutu artean alemanen lanak. Eta itzulpenetan ere, berandu. Ez dirudi Schleicher irakurri zuenik: Sayce ingelesa, bai, behar bada. Eta 'gramatiko berri' edo 'gazte' zirelakoek *the wonderful seventies* haietan zabaldu zituzten bideak ez zituen begitatu.

Bi pasarte atera nahi nituzke hemen, Campionen lehenbizi hartako eta ge-

roko ideiak azaltzeko. Ez dakit ongi ze ondorio atera dezakegun iturburu horietarik: dena den, ez zaigu behintzat kaltegarri gertatuko bata bestearekin erkatzea, argi-izpiren bat sor daitekeelakoan. Erdaraz utzi ditut, ez baitut este nigandik datorren euskara don Arturoren erdararen pareko izango denik.

Lehen puntua *Gramática*-tik dator, 11 hh.: Lubbock-en *L'homme préhistorique* aipatuaz:

«El progreso de un lenguaje está íntima y esencialmente ligado al desarrollo intelectual del pueblo que lo habla. Las lenguas de las razas más inferiores no contienen palabras que indiquen idea alguna abstracta y genérica. Las tribus australianas [Australiakorik eta batez ere *aboriginal* direlakoetarik aurrean ez dugulakoan ari naiz], que pueden considerarse como las más salvajes del globo, en los idiomas que usan, carecen de términos para indicar ideas de aquellas clases como *árbol, pez, pájaro*, etc., y únicamente poseen términos específicos aplicados a cada variedad particular; son incapaces de contar más arriba de cinco, y la palabra que expresa este último número representa en su espíritu la idea de muchos objetos, como entre nosotros los vocablos cien ó mil.»

Badirudi, nolanahi ere, gu *hamaika*-n gelditu garela Cantor-en kontagai diren azkengabeak aditzera emateko. Nork esan behar ziokeen Campioni horixe berori egotziko ziotela luzaro gabe euskarari, *arbola* (*zuhaitza, zuhamua, aretxa, errexala*, etc.) zela eta, don Miguel de Unamuno argiak eta Verdes Montenegro hagitz ilunak.

«Pero á medida que progresa la inteligencia del pueblo y se ejercitan con lentos y continuados trabajos las funciones de generalización y abstracción [baina hori, Aristotele eta San Tomas lekuko, *noûs poiêtikós* edo *intellectus agens* dela medio, berezko du gizon orok], se crean vocablos nuevos que corresponden á las nuevas ideas. Cuanto más compleja se torna la organización social, más necesidad hay de aumentar su vocabulario.» Horrela, gure haurren haurrek *herriak behar zaitu* idatzi beharrean, zahar kaskailduen antzera, *herria behar zaitu* ipiniko dute atzeman berria dugun goragoko mailan. Ez ote da hor, *avant le mot*, harako *stadial'nost'* zelako 'dotrina berri' haren zantzurik?

«Acontece también que las lenguas presentan grados de parentesco unas con otras; que proceden, por derivación, unas de otras, y la clasificación científica constituye grupos con ellas, y busca su filiación, y establece, á veces conjuntamente, á veces positivamente, su generación y evolución, y consigue, no solo referirlas á un cierto tipo de organización general [tipo edo egitura modu batera, guretzat], sino también á un tronco común del cual proceden varias ramas, ó mejor dicho, á *una matriz* [lehen-hizkuntza, *Ursprache* alemanez]. Así sucede con las lenguas indo-europeas, cuyo progenitor ha sido hallado por los lingüistas merced á sapientísimos trabajos de reconstrucción, tan delicados como exactos...»

Illo beretsutik, 22 eta hh.:

«La más alta generalización á que se ha llegado en materia de taxonomía lingüística ha sido la de constituir tres grupos en que pueden entrar todas las lenguas conocidas...: lenguas monosilábicas..., lenguas aglutinantes..., lenguas de flexión. Esta clasificación es en lingüística lo que las tan conocidas de Bäuier y Cuvier en zoología, los cuales dividieron á los animales en vertebrados, moluscos y zoófitos... Cada uno de los grandes grupos lingüísticos mencionados revela una diferencia verdaderamente *orgánica* [orain, segur aski, 'estructural' litzateke], y según el común sentir de los lingüistas contemporáneos, el tercer grupo procede de los anteriores por evolución, debiéndose indudablemente este punto de vista á la influencia avasalladora que ejercen actualmente las teorías transformistas de Goethe, Lamarck, Darwin y Haeckel, muy en boga en la actualidad, tanto que por todas partes rompen las fronteras de las ciencias naturales. Sin embargo, en estos últimos tiempos se ha iniciado una reacción notable contra los principios de la escuela lingüístico-naturalista representada por Bopp, Grimm, Schleicher, Hovelacque, cuyas teorías a pesar del tinte eminentemente positivo de que quieren revestirlas sus adeptos, son en más de una ocasión completamente arbitrarias».

Kontrako ikuspuntu hau, dirudienez, Saycegan aurkitu zuen. Nik, aurrera gabe, puntu bat markatu nahi nuke. Etsaiak sortu zaizkion eskola «escuela lingüístico-naturalista» deritza hemen; ez «naturalista» eta kito. Horrela bada, nahiz Campion ez den sekula Darwin eta kideen iritzien alde agertzen (Goethe gaizki sartu du andana horretan, honen *Urpflanze*-ak ez baitzuen zer ikusirik ezta geroko *Ursprache* umilarekin ere), ezta ere mintzatzan bizidunen arteko «sortze eta bilakaera»-ren aurka. Alde ez bazegoen (bere sailetik kanpora ari zen, nolnahi ere), ez zuen gure artean irakur daitezkeen itxuragabekerien antzekorik idatzi.

Hona bat, etimologiari eta Arratia eta Agarre'tar Jon Mikaili, *Euskadi* 10, 1913, 34, zor dioguna, *areitz*-en sorrerarekin borroka bizian: «¿Sería completamente improbable suponer que el vasko en alguna época de su historia se alimentara de la fruta de este árbol? Sería verdaderamente sugestiva una tal etimología para un defensor del estado salvaje del hombre primitivo [egoera horri ere ez dio muzin egiten Campionek, ikusi dugunez]. Mas no para nosotros que en el salvajismo descubrimos indicios claros de degeneración, y damos fe incontrastable a documentos divinamente auténticos que nos vedan tales aberraciones.»

Gogoko zuen (edo, guttienez, sekula baztertu ez zuen) sailkatze modu horretarik ez zuen, ezin zezakeen, ondorio larririk atera euskarari buruz. Ik. 25. orr. Hizkuntzarik gehienak bezala euskara «pertenece al grupo de las lenguas aglutinantes; esto no ofrece duda alguna y es por todos los lingüistas reconocido; pero en cambio las dudas aparecen en cuanto se trata de designar puesto al euskara dentro del grupo ya nombrado... me contentaré con expresar la opinión que me parece más fundada, y es la que coloca al euskara, dentro de la clasificación general de las lenguas aglutinantes, entre las lenguas uraloaltaicas y las americanas.»

Eman dion kokalekua zabal baino zabalagoa da, ikusi duzue: Amerikan bada guztitakorik. Ez dio ezer, bestalde, ahaidetasunaren aldetik. Kaukasoko bazterrak ez ditu aipatzen, nahiz eta Fitaren *El Gerundense y la Española primitiva* 1879koa izan. Orduko 'iberikoa' ere ez du ukitzen. Hübner-en *Monumenta*, egia da, ez dira 1893 arte irtengo.

* * *

Urteen buruan, luzaroan ikasi eta aztertu ondoan, iritziak aldatu zituen, ez bide gehiegi. 1931ean agertu zen, lehenago prest bazegoen ere, *Origenes del pueblo euskaldún (Euskariana 10.ª serie)*, 2-3, 3ª parte, *Testimonios de la lingüística* vol. 1. Sailkatze lanari ekiten dio hemen ere, 106 hh:

«Los lingüistas de antaño clasificaron a las lenguas mirando a una forma o tipo que estimaron fundamental y característico, y crearon tres grupos: el de las lenguas monosilábicas, el de las aglutinantes y el de las de flexión; los de hogaño, impresionados por las imperfecciones, inconvenientes e inexactitudes de dicho encasillamiento taxonómico, le repudiaron sañudamente y buscaron el modo de sustituirle. Según Mr. Meillet, uno de los corifeos franceses de las nuevas teorías, la única clasificación lingüística que goza de valor y utilidad es la clasificación genealógica, fundada en la historia de las lenguas; pero esta clasificación sólo explica la sucesión de las lenguas y de los dialectos diferentes. Mr. Meillet viene a confesarlo...; una *familia* de lenguas es el conjunto de hablas más o menos diferenciadas entre las que continúan una misma lengua común... En puridad, estimo yo que el nuevo método viene a expresar determinaciones geográficas; no pasa de ahí. Pero teóricamente considerado, y salvas sus imperfecciones, es superior al fundado exclusivamente sobre los datos de la geografía... algo semejante llevan a cabo los actuales lingüistas, que renuncian a las clasificaciones orgánicas en vez de mejorarlas o sustituirlas ventajosamente. De no haber clasificación mejor, se habrá de confesar antes que en la Lingüística no existe verdadera materia susceptible de conocerse científicamente.»

Jakitearen aurrerakuntzak, lasai zeudenak lotuaz, ez zuen, bistan da, Campionen gose-egarria apaltzen: biztu egiten zuen, izatekotan ere. Brugmann-ek edo Meillet-ek hautetsi zuten bidea, izaerari baino bilakaerari itsatsiagoa, ez zen zenbait berrizalaren apeta burugabea: jadanik hartua zuten biologoek eta ez dute utzi geroztik hona. Bakar-bakarrrik, ezin uka arrazoi honen indarra Campionen pentsabideak ulertu nahi baditugu, biologia askotaz ere urrutiago, aspaldirantzago, heda daiteke hizkuntzalaritza baino. Hizkuntzek, idazkerari hain lotuak daudelarik, opa dizkiguten mugak ez dira behar genituzkeen bezain zabalak. Eta nekez aurkituko dugu hizkuntzetan, bizidunen artean bezala, denboraren zedarriak atzeraziko dituen aztarnarik.

Hizkuntzetan geureari gagozkiola, gainera, euskararen zurztasunak, ahaidetik ezak, irtenbideak mozten zizkion Campioni eta mozten dizkigu geuri, ez

baitugu aurkitzen lekurik horrentzat sailkatze modu honen bitartez. Ezin lor dezakeguna lor lezakegu, behar bada, ez dakigun zerbait gertatuko balitzaigu. Nolanahi ere, hobeko dugu egona ezinegona baino, ustekabekoen begira gaudeino.

Esan beharra dago, azkenera gabe, ez zuela sekula Campionek historia ahazturik eduki, aurre-historia ez ezik. *Gramática*-n, 13. orrialdeko oharrean, aipatzen digu bidenabar nolako fruitua atera zuen aspaldisko Mommsen-ek hizkuntzaren emaitzetarik Erromako Historiaren lehen tomoan. Eta *Origenesen*, 129 hh., saiatu zen bere kabuz bai hizkuntzaz baliatzen bestetarako (ik. «El baskuenze, instrumento de la llamada paleontología lingüística»), bai hizkuntzaren historia lantzeko lekuko zahar eta aski atzenduak zein genituen erakusten. Eske hori entzun zuen beste inork baino biziroago agian eta, eskeak ernaturik, azterbideak agirian utzi zituen. Ondorengo lana ez zegokion berari.

Daramadan ildotik itzuri, beste zerbait, inork eskatu ez didana, ukituko dut bukatzeko. *Campion* idazleaz, idazleaz *ut sic* Larramendik ziokenez, ez da inor gehiegi mintzatzen; han-hemenka entzun dut, gainera, hantua, puztua zela haren idazkera. Ez zuten horrela uste bere garaiko eta gerotsuko batzuek, hala nola don Boni Etxegaraik, aski zirikatzaile jaulki zitzaion *La Bella Easo*-ren berrian, *RIEV* 3, 1909, 532-537: «El nombre de don Arturo Campión es el más prestigioso de cuantos hoy cultivan las letras en el país vasco-navarro.»

Gordinegia aurkitzen du, halaz guztiz: «Un reparo hemos de oponer á *La Bella Easo* y es el excesivo uso que su autor hace de ciertos procedimientos naturalistas, que si fueron discutibles siempre, hoy están desacreditados y pasados de moda.» Beraz, beheraka zihoan 'naturalismoa' Etxegarairen ustez, hizkuntzalaritzan Campionen ustez zihoan bezalaxe. Ez zait iruditzen, ordea, okerreko bidetik zebilenik kritika, joera hori arras nabari baita Campionen elaberri eta kondairetan erabat. Gure arteko guttiren gan adina, eta ez naiz euskal idazleaz ari.

Horren aldamenean, beste ixuri garbia ageri duela, goitarragoa, epika kutsukoa, antzineteari lotzen zaionean: niri, zuzen nahiz oker, Hebbel gogorazten dit elkar-hizketan hasten denean. Baita Flaubert ere, eta ez *Madame Bovary*-koa.

Hau ongi irakurria zuen, noski, eta behin bederen badirudi nolazpaiteko lotura aurki daitekeela bataren eta bestearen artean. *Sancho Garcés* berriz irakurri dudanean *Salammbô*-ren VII. kapitulua etorri zait gogora. Kapitulu horren pasarte bat, hobeki esan: Hamilkarri semeak arranoa garaitu duen borroka kontatzen dion hura.